



Duela 40 urteko motorra topatu dute

TOLOSA ▶ Gerontologiko berria eraikitzeko lanak egiten ari zirela aurkitu dute Otto Deutz makina

IKERKETAK ▶ Hainbat museok zein Aranzadik baztertu egin dute motorra, baliorik ez duelakoan ▶ 6



Otto Deutz izeneko motor dieselaren zati bat. A. IMAZ



N. URBIZU

Ibiur presaren lanak aurrera doaz

BALIARRAIN ▶ Dagoeneko presak behar dituen 170.000 m³ hormigoietatik 40.000 m³ inguru jarri dituzte langileek ▶ 5

TOLOSA ▶

Herriaren 100 urteko historia bildu dute 'Esperientziak' lanean

400 irudiz osaturiko liburuxka eta 30 minutu irauten duen DVDa aurkeztuko dituzte gaur Zerkausian ▶ 2

hitza
argazki
lehiaketa

bidali oporretako argazkiak!

ARGAZKIAK NORA BIDALI

- ▶ P. elektronikoa: tolosaldean@tolosaldekohitza.info
- ▶ Postaz: Argazki Lehiaketa. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza. Araba etorb 5, atzea • 20400 TOLOSA

Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzako HITZaren egoitzetara ekarri

OINARRIAK: www.tolosaldekohitza.info

Sari nagusia

BIDAIA paregabe bat zure neurrira

2 lagunentzat 4 eguneko egonaldia, mantenu erdiarekin Santanderren edo Errioxan



Bidaia Agentzia
bidaide

www.bidaide.gruposercm.com

Erriobeia, 6-behea • 20150 Villabona

Tel.: 943 692 693

bidaide@gruposercm.com

ZOKETA APARTAK



PARTE-HARTZAILE ETA BOTOEMAILE guztien artean HITZaren motxila eta mendiko gerriko poltsa zozkatuko dira



KULTURA ▶



Izagirretarren artxibotik. Nazional Iean izandako istripu baten irudia.



Linazasoro familiaren artxibotik. 1960ko Inauterietako argazkia.



Perea sendiaren artxibotik. Aroztegieta kaleko janari denda bat.



Jesusen Alabako artxibotik. Jesusen Alaba kastetxeko eliza XX. mendearen erdialdean.



Esnaolatarren artxibotik. 60. hamarkadako haur parkea.

Tolosaren 100 urteko historia argazkitan

'Esperientziak' proiektuaren baitan, irudiz osaturiko liburuxka eta testigantzen DVDa aurkeztuko dute gaur

ESTI EZEIZA

Duela bi urte, *Esperientziak* proiektua abiatu zenean, Okugraf enpresak zuen beldurre-tako bat, jendeak izango zuen erreakzioa zen. Hau da, adinekoen etxeetan testigantzak lortzeko asmoz ekipo teknikoarekin sartzean hauek erakutsiko zuten jarrera. Baita, argazki zaharrak eskatzeko garaian ere,

jendeak emango zuen erantzuna. Orain, egitasmo honek izan duen arrakasta ikusi eta gero, Tolosaldeko argazkiz osatutako liburu bat eta 18 pertsonen testigantzen DVD bat gauzatu dituzte Noticias de Gipuzkoaren egitasmoz, eta Tolosako Udalak lagunduta. Bilduma hau, hain zuzen, gaur arratsaldean aurkeztuko dute Zerkausian, 20:00etan. Argitaratu be-

rrri den bildumarekin amaiera ematen zaio Tolosaldeko *Esperientziak* lanari.

Nondik norakoak

Denera 9.000 argazki bildu eta digitalizatu zituzten Okugrafekoek, eta hauetatik 400 aukeratu zituzten liburua osatzeko. Okugraf, Artelekun kokatua dagoen elkarte txiki bat da, eta

bertako kide den Iñigo Royoren esanetan, «liburu honen helburua Tolosaren 100 urteko historia argazkitan biltzea zen». Bilduma berri hau bi hizkuntzatan dago egina, euskaraz eta gaztelaniaz.

Argazkiak 13 gairen artean banatu dituzte. Hauetako bakoitzari testigantza batek ematen dio sarrera. 9.000 argazkietatik aukeraketa egin ondoren finkatu zituzten gaiak Okugrafekoek. Jorrazten diren arloak ondorengoak dira: Tolosaren bistak; haurrak; eskolak; mendia; gerra eta politika; uholdeak; lana; nekazal mundua; lokomozio bideak; jaiak; erlijioa; bizitza soziala eta kirola eta ohiko bizitzako eskenak.

Royoren esanetan, lanik zailena argazkien aukeraketa egitea izan da, «izan ere, aukera-

tzeko garaian, beti gailentzen zitzaigun sentsazioa zen, argazkirik onenak alde batera uzten ari ginela».

Liburuaren egileek azaldu bezala, «gaur aurkeztuko den lana, argazkien bitartez eta testigantzekin Tolosaren historian zehar egiten den bidaia da». «Baina ez da ibilbide guztiz sakon bat, baizik eta alde batekoa, partziala» gaineratu du Iñigo Royok. Beraz, liburuaren xedea historiaren zertzelada bat ematea izan da. Bestalde, irakurtzeko atsegina eta erraza egiten saiatu dira Okugrafekoak. Argazki bakoitzak bere oina du eta hau ere ahalik eta zehatz eta laburren egin nahi izan dute. Honekin batera, 30 minutu irauten duen DVD horretan tolosarren testigantzak agertzen dira.

TEKNOLOGIA ▶

600 lagun bildu ditu Usabalen informatika topaketa erraldoiak

Lehen Gipuzkoa Encounterren arrakastarekin «gustura» agertu dira antolatzaileak; litekeena da bigarren bat egitea

IÑIGO TERRADILLOS

Gipuzkoa Encounter Usabal kiroldegian iragan asteburuan hiru egunez egin duten informatika topaketa «oso arrakastatsutzat» jo dute antolatzaileek, eta hori ikusita, bigarren edizio bat egitea litekeena dela azaldu dute.

Denera 300 ordenagailu eta 600 lagun inguruk hartu dute parte jai honetan. Parte-hartzaile gehienak gipuzkoarrak izan dira, %42, hain zuzen; bizkaitarrak %30a izan dira, nafarrak %9a eta arabarrak %7a. Gainerako %19ari dagokionez, atzerriatik etorritakoak izan dira. Hauetatik, gehienek sarean jokatzeko bideojokoak aukeratu dituzte, %45ak. Hauen ostean, Linux-a aukeratu dute, eta baita *modding*-a ere. Erabiltzaileen artean 9.000 euro inguru banatu dituzte antolatzaileek egin diren lehiaketa



Gipuzkoa Encounter topaketako une bat, Usabalen. I. TERRADILLOS

desberdinetan, hau da, arte elektronikoan, 2D eta 3D diseinuan, musika elektronikoan eta bodeojokoetan.

Jokin Bildarratz Tolosako alkatea ere gustura agertu da lehenengo edizio honek izan duen arrakasta ikusita; «Uda-

laren helburua, besteen artean, teknologia berriak eta informatika bultzatzea da, batez ere, gazteen artean», adierazi du. Udalaz gain, erabiltzaileak ere gustura geratu dira, batez ere, Usabal kiroldegiak eskaini diona ikusita.

EUSKARA ▶



Euskara ikasi eskualdeko egunkaria irakurriz

I. Terradillos ▶ TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK harpidetza kanpaina jarri du abian. Honen baitan, Tolosako Udaleko euskara zerbitzuak harpidetza kanpainarekin bat eginez, 2007. urtean Aitzol Udal Euskaltegiko 75 ikaslerentzat urte erdi-

ko TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariaren harpidetzak finantzatzea erabaki du. Horri esker, Aitzol euskaltegiak zerbitzu osagarri bat eskaintzen die bertan euskara ikasten ari diren ikasleei. I. TERRADILLOS

LAPURRETA ▶

Kosmetika produktuak lapurtzeagatik atxilotuta

Ertzaintzak bikote bat atzeman zuen atzo, 1.000 euroko baliodun produktuak lapurtzen

ERREDAKZIOA

Atzo arratsaldean 40 urteko P.A.G. gizona eta 39 urteko M.B.P. emakumezkoa atxilotu zituzten Tolosako Ertzaintzaren egoitzako agenteek 1.000 euro baino gehiagoko balioa duten kosmetika produktuak lapurtzen ari zirela harrapatu zituztenean.

17:30ak inguruan jaso zuen Ertzaintzak Tolosako saltokigune batean lapurtzen ari zirenen abisua. Ertzaintzak lapurreta gertatu zen lekura iritsi zirenean, supermerkatuko arduradunek atxikirik zuten gizona eta, saltokitik irteteten ari zela harrapatu baitzuten 625 euroko baliodun pro-

duktuekin, gehienak kosmetikakoak. Ertzaintzei jakinaren gainean jarri zieten gizona eta emakumezkoarekin zegoen emakumezkoa oraindik supermerkatuaren barruan aurkitzen zela. Hala, ertzaintzak barrura sartu eta emakumea atzeman zuten bere erropen artean eta motxila baten barruan kosmetika produktuak gorderik zituela. 400 euroko balioa zuten hauek, eta antza aldagelatan sartu eta alarma sistema kendu zieten lapurrek.

Biak atxilotuak izan ziren lapurreta egiteagatik, eta epailearen aurretik pasa behariko dute. Biek aurrekariak dituzte, emakumezkoaren kasuan, 18 aldiz izan da atxilotua.

KULTURA ▶

Pirritx eta Porrotxerako sarrerak agortuta

Laskorain Ikastola bere 40. urteurrena ospatzen ari da aurten, eta hori dela eta zenbait ekitaldi antolatatu dituzte. Horien artean, Pirritx eta Porrotxeren emanaldia izango da larunbat honetan, hilaren 21ean, 18:00etatik aurrera, Leidor antzokian. Bertarako sarrerak dagoeneko agortu direla azaldu dute.

GIZARTEA ▶

Jai batzordeak deituta, bilera Kultur Etxean

Bilerara deitu dute gaur Udaleko jai batzordeak. Bilera gaur izango da arratsaldean, 19:00etan, Tolosako Antonio Maria Labaien kultur etxean. Bertan jorratuko duten gaia San Joan jaiak izango dira, hain zuzen ere. Jai batzordetik herritar guztiak animatzen dituzte bilera honetan parte hartzera.

KULTURA ▶

Julio Pardoren erakusketa Aranburun

Julio Pardoren pintura-erakusketa inauguratuko dute ostiral honetan, hilaren 20an, 19:00etan, Aranburu jauregian. Julio Pardo Iruñean jaio zen, 1957an, baina aspalditik Donostian bizi da. Leioako Arte Ederretako Fakultatean ikasi zuen, eta karrera amaitu ostean, hainbat erakusketa egin ditu Euskal Herrian barrera, taldeka nahiz bakarka. Tolosako erakusketan azken lau urteetako lan batzuk ikusi ahal izango dira. Neurri askotakoak dira koadroak, eta pintura akrilikoz margotutak.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Autoa. Opel Frontera 2.2 DTI Limited, 2001. urtekoa. 80.000 km. 12.000 euro. 657 79 51 76.

LANA

Sukalde laguntzaileak. Jangeletarako, eskolak. 943 44 48 66.

Gidaria. Erakunde publikoetarako. 943 44 48 66.

Sukaldaria. Villabonan sukaldaria behar da. 943 69 19 33.

Zerbitzaria. Zerbitzaria behar dugu Amasako tabernan. 943 69 12 10.

Estetizista. Tolosako ileapaindegi batetarako estetizista behar da. 607 902 558.

VILLABONA ▶ MENDIA



Urkulu mendiaren gainean zaintze-dorre baten hondakinak daude. HITZA

Errozate eta Urkulu mendiak, Aizkardiren hurrengo irteeran

Mendizaleak Nafarroa Beherara igandean joango dira

ERREDAKZIOA

Aizkardi Mendi Elkarateak beste irteera bat egingo du igandean. Nafarroa Beherara joango dira oraino honetan eta Beherobi-Erozate-Urkulu-Luzaide ibilbidea egingo dute. Beherobitik (337 metro) abiatuko dira eta Erobi ibaiaren ondotik, Errozate (1.345 m.) mendirako iogerari ekingo diote.

Errozatera igo ondoren, Arpea haitzuloaren gaineko gailurarteko ibilbidea egingo dute Orion leporaino (970 m.), gero Organbide lepotik (988 m.) igarotzeko alturarik galduta gabe. Puntu horretatik Urkulu (1.419 m.) mendia igotzen hasiko dira. Mendi honek ikuspegi ederrak ditu eta zaintze-dorre baten hondakinak ere ikusi daitezke bertan.

Ibilbide guztiaren iraupena zazpi ordu ingurukoa izango da eta 24 kilometro egingo dituzte mendizaleek. Izena eman nahi dutenek 943 69 44 58 zenbakira deitu behar dute edo Aizkardiren egoitzara joan behar dute. Bihar da azken eguna horretarako. Irteera Olaederra kiroldegia ondotik izango da, igandean goizeko zazpitan.



Erozate mendiaren ikuspegi, Beherobitik abiatuta igoko duten lehen mendia. HITZA

ASTEASU ▶ GIZARTEA

Lizarraldeko bidegorrira irteera Udalaren eskutik

ERREDAKZIOA

Asteasuko Udalak beste irteera bat antolatu du bidegorrien inguruan, hilaren 22rako. Kasu honetan Lizarraldeko bidegorria egiteko asmoa dute. Murietatik abiatu eta Antzin, Acedo, Zuñiga eta Antofiana herriak zeharkatuko dituzte. Bidegorriak 25 kilometro ditu eta antolatzaileek azaldu dutenez, «ibilbide oso polita eta erraza da, umeentzako ere

bai». Bide erdian bizikletak utziko dituzte mementu batean ubide bat ikusteko. Bidegorria bukatu ondoren atsedeneleku batean bazkalduko dute.

Hain justu bazkaria bakoi-tzak berea eraman behar du. Autobusak eramango ditu motxilak ibilbidearen zati batetik bestera. Bidegorriraino bizikletak kamioneta batek eramango ditu. Izena Kultur Etxean eman behar da eta 5 euro ordaindu behar dira.

ZIZURKIL ▶

Skatearen inguruko proiektua

Street Art Proiektua jarri nahi dute martxan herrian. 9 urtetik gorakoek eman dezakete izena udal bulegoetan edo kale hezitzaileei eta bihar da azken eguna. Skate taularen diseinu eta margo-tzea eta Jart Skate fabrikara bisita egingo dituzte, besteak beste.

ZIZURKIL ▶

UEUko ikastaroen matrikularentzat diru laguntzak

Udako Euskal Unibertsitateak antolatzen dituen ikastaroen parte hartzen duten zizukildarrei Udalak diru laguntzak emango dizkie matrikulak ordaintzeko. Informazio gehiagorako Aurrera plazako bulegoetara jo daiteke.

IRURA ▶

Ezker abertzalearen bilera, gaur

Irurako ezker abertzaleak deia luzatu die herritarrei bilera baterako. Bilera horretan hauteskudeen inguruan eta etorkizunean nolako Irura nahi den hitz egingo dute. Bilera herriko ikastolako aretoan egingo dute 20:00etatik aurrera.

ZIZURKIL ▶

Ezker abertzalearen aurkezpen ekitaldia

Zizurkilgo Abertzale Sozialistak aurkezpen ekitaldia egingo du larunbatean, 12:00etan, Joxe Arregi plazan. Bertara herriko ezker-tiar eta abertzale guztiak joateko deia luzatzen dute. Ondoren, luntxa egingo dute Atxulondon eta gero poteo herrikoia antolatu dute. Bestalde, hautesle zerrenda aurkezteko sinadura bilketa ere Aurrera plazako bulgoetan ere egingo dute, astegunetan 08:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 18:30era. Larunbatean ere aukera izango da leku berdinean, 10:30etik 12:30era.

DENOK apirilaren 4tik 22ra
SINATZERA!

PROZESUAREN ETA HAUTESKUNDE DEMOKRATIKOEN ALDE

**HERRIETAKO NOTARITZETAN
UDALETXETAKO IDAZKARITZETAN**

badator
euskal herri berria



www.euskalherriberria.info

BALIARRAIN ▶ HIRIGINTZA

Ibiur urtegiko presa itxura hartzen hasi da

Bainuontzi erraldoi batekin pareka daiteke Ibiur; sei hilabete inguruan presaren laurdena egin dute, hormigoiez



Presa itxura hartzen hasi da: dagoeneko jarri beharrekoaren laurdena jarri dute. N. URBIZU

Ura izateko, etxeak sakrifikatu behar

Ibiur urtegiak ura eramateaz gain, baserri batzuk ere eramango ditu. Errota izango zena, dagoeneko ez dagoen Garrotxa, Gure Ametza, Ergeta eta zerrategi bat.

Azken mementura arte ez dituzte eraitsiko, errota eta Gure Ametza langileen bulego, nahiz laborategi moduan erabiltzen baitituzte.

Ondoren, hustu eta urez betetzen hasiko da, hainbat erreka txikitatik bildutako urarekin, Txindokin jaiotzen den errekekarekin batera. ◀



Urtegia egitearen ondorioz irudiko baserriak eraitsiko dituzte. N. U.

NEREA URBIZU

Bainuontzia da urtegi baten funtzionamendua ongi ulertzeko grafikoa. Hau izan daiteke Ibiur urtegiarena ere. Honen presa duela 6 bat hilabete hasi ziren eraikitzen, baina apirilaren zehar hasi dira lanak gehienbat nabaritzen. Izan ere, dagoeneko, presak behar dituen 170.000 m³ hormigoietatik 40.000 m³ inguru jarri dituzte.

Imanol Pildain obretako zuzendaria eta proiektuaren egileak, hain zuzen, adierazi zenez, «presa grabitatekoa izango da, hau da; bere zamarekin sostengatzen da, eta profila triangeluarra izango du. Horrek esan nahi du oinarria zabalagoa izango dela goiko alde baina». Horrez gain, blokeka eraikitzen ari dira; «guztira 17 izango dira, eta erdi-erdikoak hasi gara egiten, bost, alegia».

Ibiur erreka ubidea dauka eta izango du, noski, horretara behartuta baitaude: «Presa eraikitzen hasteko garaian harraitzen irregulartasuna izateaz gain, euriteak eta urak berak oztipo txiki batzuk jarri dizkiugu, baina alde batetik erreka desbideratu genuen, eta bestetik, eguraldiari aurre egiteko erabiltzen ditugunak praktikan jarri genituen».

Hormigoia jartzen hasi aurretik 6 metro eta 9 metroko sakonerako zuloak egin zituzten, «hormigoia harkaitz sendoen gainean jartzen zela ziurtatzeko, ez baita komeni hormigoia lur bustiaren gainean jartzea».

Erreken emari ekologikoa

Orain ere Ibiur erreka ubidea du, eta garraiatzen duen ura «ahalik eta garbien doa. Horretarako tresneria ere badugu: obretan behar dugun ur hori errekarara isuritzean garbi egoteko, hain zuzen», argitu du Imanol Pildainek. Emari ekologikoa mantenduko du, derrigorrez behar dena, alegia. «Kantitate hauek finkatuta daude: errekek daraman ura ken emari ekologiko horrek betekiko du urtegia; gutxi dela ematen du, baina azkenean betetzen da».

Hurrengo pausoa gainezkabidea izango da. «Presak gainezkabidea izango du, hau da; presaren altuera osoa baino hiru bat metro beherago irekiune bat, handik ura erortzeko. Horrek esan nahiko du urtegia beteta dagoela: baimuontzian segurtasunerako dagoen zulotoxoaren funtzioa izan dezakeena da». Uraren maila jais-tea komeni balitz kasuaren batean, «horretarako, baimuontzian tapoiaren funtzioa betekiko lukeena, alegia, ondoko isurbi-

ZENBAIT DATU ▶

Presaren altuera. 69 metro.
Bloke kopurua. 17, bata bestearen ondoan.
Luzera. 232 metro.
Oinarria. Zuzena.
Parez pareko itxura. V forma.
Profila. Triangeluarra, oinarria zabalagoa goiko alde baina.
Materiala. Hormigoidardaratu.
Orain arte eraikitakoa. %25.
Edukiera. 6.500.000 m³.
Hornituko dituen herriak. Ikaztegieta, Altzo, Alegia, Tolosa, Ibarra, Irura, Hernialde, Anoeta, Irura, Villabona, Asteasu, Zizurkil, Aduna eta Andoain.
Urtegiaren perimetroa. 5.752 metro.

deak daude». Horma handiaren barrutik, presa guztiek duten galeria egiten hasi dira ere, gehi beste bi galeria horizontal, «baina oraindik ez da altuera nahikoa eraiki azken hauek egiteko». Hauei esker, urtegiari buruzko hainbat datu —tenperatura, uraren egoera...— lortu ahal izaten dira.

Ibiur urtegiak hainbat erreka txikiren urak hartuko ditu, emari ekologikoa beti ere errespetatuz: Errotalde, Lopeitegi, Basabe eta Aldaba hain xuxen. Ur hauek Ibiurra desbideratu egin dira ur-hodien bidez, eta bestea errekan bertan geratzen da, honela emari ekologikoa errespetatuz. Aralar aldetik baliteke Urtxubiko urak isurtzea ere, «baina mementuz ez da ezer egin: zalantza da oraindik. Gainera, lan hori ez dagokigu guri».

Errepide berria

Ibiur egitearekin batera, presa egin behar zela eta paisaia asko aldatuko dela ezin uka. Baliarraina joateko errepidea ere aldatu egin da, eta Ibiurko obrez arduratzen direnek egin dituzte. «Aldaketa hauek eta errepideko obrak herritarrak asko trabatu ditu, eta pazientzia handia erakutsi dute. Guk ahalik eta lan txukunena egin saiatu gara, eta zintzo jokatu dugu beti, egin behar zeneren informazioa beti emanez. Jarrera oso ona izan dute baliarraindarrek».

Edozein kasutan, hurrengo martxoan dago epe administratiboa ezarrita, «baina nire uste apalean ez da ordurako bukaturiko. Ezarritako epe horrek, dena dela, ez du esan nahi orduan bukatu behar denik, baina martxa ona da, obrak ondo doaz, ia espero bezala».

TOLOSA ▶ HISTORIA

Otto Deutz zaharra

Gerontologiko berria doan lekuan egindako lehen lanek ezusteko alemaniarra eta berarekin batera Tolosaren bilakaera agerian utzi dute



Tolosako ur eta argi zentrallean erabiltzen ziren zilindroak, alternadorea, dinamoa eta inertzia bolante zaharra. ASIER IMAZ

ASIER IMAZ

Udalak Gerontologikoa eta aparkalekuak egin nahi dituen gunean, lehen lanak hasi dituzte. Alondetik gunean, San Frantzisko eliza edo Beotibar frontiarean atzealdean, kutxareek ur eta argi zentroa eta Tolargiren kokalekua izan zena bota dute. Lehen harri eta lur mugimenduek ordea, alemaniar izeneko ezustea ekarri dute: Otto Deutz motor diesela, hau da, orainaldian agertu den iraganeko makinaria.

Honen berri jakiteko 40 urte inguruan bertako zuzendari teknikoarengana jo du HITZAK, Jesus Baldarengana. «Gerra aurretik, 1925. urte inguruan

erositako diesel motorra da hau» esan du argazkia ikusi bezain laster. «Fuel oilarekin funtzionatzen zuen. Aire konprimatuarekin, inertzia bolantea martxan jartzen genuen bueltaka, honek alternadorea biratzen zuen eta azkenik zilindro eta balbulak, gora eta behera hasten ziren. Hoztutzeko ura erabiltzen genuen. Arriskutsuena pizteko prozesu hau izaten zen. Ondoren bakarrik aritzen zen bere lanean».

XIX. mende amaieran Amezketan zuten Tolosak argi indarra sortzeko zentral nagusia. Ur jauzi baten indarrak bertan sortu eta Tolosara ekartzen zuten, Alondetik barrena herriera zabaltzeko. Argi indarrarekin batera, ur eta argi zentrale-

an saneamentua eta ur banaketaz ere arduratzen ziren. «Sortzen zen indarra nahikoa ez eta laguntzeko Deutz motorra ekarri zuten Alemaniatik, Tolosak bere burua hornitzeko gaitasuna gal ez zezan. Hasean ekarri zutenak 3 zilindro eta 300 zaldi zituen. Bost urte-tara, 4 zilindro eta 500 zaldiko zituen Deutz motor diesela gehitu zen zentralerako beharretara». Tolosak lau argi indar iturri izatera heldu zen horrela. Amezketatik zetorrena, bi motorrek sortzen zutena eta bertan uraren bidez sortzen zena. «1970. urtean itzali ziren motorrak». Iturri zaharren argi urak berriei utzi zien lekua. Otto Deutzen indarrak ahultzen joan ziren heinean, bera ekar-

tzean zeuden ametsak berarekin agortu ziren. Gaur egun Tolosaren zati bat Tolargik hornitzen badu ere, beste zati bat herriatik kanpoko enpresa pribatuen esku geratu da. Inguuruan 15 langile izan zituen Otto Deutz zaharraren teilatua bota dute eta kutxareen zauriez agerian geratu da, burdin zati zahar baten moduan. Museotan ere baztertu egin dute Deutz alemaniarra, «Gipuzkoako erakundeetara joan gara irtenbide bat aurkitu nahian. Baina handiegia da eta ez du baliorik». Aranzadik ere ikerketaxo bat egin zioten, baina argazkiak atera eta hor geratu da. Baliorik sortzeko gaitasunik gabe, zahar gixa, zakarretarako beste lekurik gabe.



Lanen ondorioz kutxarearen «zauriekin» Otto Deutz motor dieselaren zati bat. A. IMAZ

IBARRA ▶

Aitor Gonzalez izango da PSE-EEren zerrendaburua



Aitor Gonzalez (PSE-EE). HITZA

A. IMAZ

PSE-EEK Ibarren Donostian jaio eta Oreretan bizi den Aitor Gonzalez aukeratu du udal hauteskundeetarako zerrendaburu bezala. Honek, «datorren legealdian etxebizitzaren beharra herrian ikusirik, lehenetsun arteen» jarri beharra dagoela zabaldu du erdera hutsean bidalitako prentsa ohar batean.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amarozen dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- ▶ **Besterik.**
 - ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

Baserriko produktua banatzeko **banatzailea** behar da
Tel. 943 69 20 54

Zerbitzaria behar da
Tolosako jatetxe batean mahaiak zerbitzatzeko
Tel.: 629 19 97 43

LEITZA ▶ NATURA

Udalak energiaren kontsumoa jaisteko hitzarmena sinatu du

Hitzarmen honen helburua 2007 eta 2008ko iraila bitartean energiaren kontsumoa %1ean murriztea da

NAIARA GARZIA

Leitzako Udalak joan den ostiralean Energia-Plana aurrera eramateko hitzarmena sinatu zuen Iruñean. Bertan, Patxi Saenz, Leitzako alkateaz gain, Javier Asin izan zen, Nafarroako Ingurumen Arloko Zentroaren ordezkaria.


Sinatutako hitzarmen honen helburua, 2007 eta 2008ko iraila bitartean, energia aldetik 2006. urtean baino %1a gutxiago kontsumitzea da. «Proiektu honek Udalak bere kontsumoa kontrolatzea du helburu, baina ez da bakarrik inbertsio kontua, baita mentalizazioarena ere, langileek ere ohitura batzuk hartu beharko baitituzte», dio Patxi Saenzek, Leitzako alkateak.

Hitzarmena sinatu eta gero lehenengo pausua txostenarena da. Bertan udaletxeke erai-kinaren kontsumoa aztertuko dute. «Gero, diagnosi horretan oinarrituz, neurriak proposatuko dizkigute».

«Apustu energetikoa»

Nafarroako Ingurumen Arloko Zentroak, Lurraren Lagunak elkartarekin elkarlanean eta Nafarroako Kutxa Fundazioaren laguntzarekin, *Apustu energetikoa, herritarren erantzuna klima aldaketaren aurka* izeneko programa martxan jarri du.

Programa hau 2004. urteko ekainean jarri zuten abian, eta bere helburu orokorra klima aldaketaren inguruan gizarte sentsibilizazioa da: herritara-



Klimaren aldaketaren ondorioak. HITZA

rrak, enpresak, unibertsitateak, ikastetxeak...

Programa honetan udaletxe eta enpresez gain, herritarren elkarrekin, hedabideek, sindikatuek, irakaskuntza zentroek, garraio enpresek, dendek, kirol-instalazioek eta nekazaritza kooperatibek ere parte hartuko dute.

Gizartearentzat laguntza

Programa hau sinatzen dutenek, besteak beste, *Apustu energetikoa* aurrera eramateko aholkuak jasoko dituzte,

programa bakoitzaren kasu zehatzera egokituz.

Iradokizunen artean, Udalen kasuan, esaterako, ideia hauek proposatzen dituzte: energia kontsumoa %1,5ean murriztea, Udalaren ibilgailuetan biodiesel erabiltzea, Eguberrietako argiak apaingarriak izan daitezkeen beste elementu batzuek ordezkatzea, babes ofizialeko etxebizitzaren bioklimatikoak sustatzea...

Asko dira oraingoz hitzarmen hau sinatu dutenak: Lesakako Udala, Pirinioetako Partzuergoa, Carrefour...

'APUSTU ENERGETIKOA' ▶ PROPOSAMENAK

Ondoko zerrendan erakundeek har ditzaketen konpromisoen inguruko zenbait iradokizun agertzen dira. Halere energia aurrezteko konpromisoa hartu nahi dutenek proposamen hauek moldatu ditzakete.

IKASTETXEAK

1. Ingurumen batzorde bat sortzea, ikastetxeke Energia Plana bultzatzeko.
2. Eskola jantokia produktu ekologiko eta bertakoez hornitzea.

AUZO KOMUNITATEAK

1. Jabekideen erradiadoreetan balbula termostatikoa ezartzea.

NEKAZARITZA KOOP.

1. Kooperatibakideen artean iragazkiak eta injektoreak aztertzeko kanpaina bat egitea.
2. Lur landuaren portzentajea handitzea. Helburu horretarako lur-lantze murriztuko sistemak edo lur-lanterik gabeko sistemak erabili daitezke.
3. Abeltzaintza-ustiatzekin hitz egitea, ongari organikoaren erabileraren portzentajea handitzeko.

ENPRESAK

1. Trenez garraiatzen diren salgaien portzentajea handitzea.
2. Enpresako langileentzako mugikortasun plan bat egitea, bakoitza bere ibilgailuaren ibili ordez energia kontsumoa murrizteko.
3. Instalazioak hartzen dituzten eraikinak bioklimatikoki eraikitzea.

GARRAIO ENPRESAK

1. Ibilgailuetan biodiesel erabiltzea.
2. Garraiatutako tona bakoitzeko energia kontsumoa minimizatzen duten ibilbideak ezartzea, itsasontzi eta trenaren erabilera bultzatuz.

ERAIKUNTZA ENPRESAK

1. Eraikinak diseinatzean

irizpide bioklimatikoetan oinarritzea.

2. Enpresako langileek energia aurrezteko materialen inguruko ikastaroak egitea.
3. Ingurumenari lehenetasuna ematen dioten materialak erabiltzea.
4. Herri eta hirien barruan naturak duen garrantzia onartzen ikastea, eraikuntzan ere etika erabiltzea.

ENPRESAK-SINDIKATUAK

1. Hitzarmenetan lanera joateko talde garraioa sustatzea, auto pribatuaren erabilera murrizteko.

ABELTZAINZA-USTIATEGIAK

1. Hurbileko nekazaritza kooperatibekin hitzarmenak sinatzea, animalien elikaduraren kontsumorako.
2. Berokuntza eta behiak jeizteko sistemetan energia hobekuntzak egitea, kontsumoa murrizteko.

DENDAK

1. Gazez, errotulu eta erakusleihoetako argiak murriztu edo kentzea.
2. Produktuak biltzeko paper eta plastikoen erabilera murriztea.

KIROL INSTALAZIOAK...

1. Ura berreskuratzeko sistemak ezartzea.
2. Mantentze-lanetako langileei energia aurrezten ikas dezaten ikastaroak ematea.
3. Instalazio hauek erabiltzen dituztenen artean sentsibilizazio kanpaina bat egitea.

SINDIKATUAK

1. Sindikatuetako ordezkari eta gainontzeko kideei klima aldaketari buruzko ikastaroak ematea.

► Harremanetarako: Nafarroako Ingurumen Baliabide Zentroan, 948 14 08 18 zenbakira deituz, edo energia@crana.org helbide elektronikora mezu bat idatziz.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldekohitza.info

Tel.: 943 65 56 95

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Altoz. *Zergatik bizi da Txanogorritxoren amona basoan?* txobongilo emanaldia, Enkarni Genuaren txobongilo taldearen eskutik. Lizarbeko ezker aldeko gelan izango da, 17:00etan.

Anoeta. Alkartasuna Biltokitik azaldu dutenez, Naiara Ortega podologoaren bisita izango du 14:30etik aurrera.

Lizartza. Guraso arteko topaketak, *Prebentzioa familian* barnean, nerabezarori buruz hitzaldia izango da, Koro del Pozo eta Aiora Perez izango dira. 16:30ean Kultur Gunean.

Tolosa. Apetol elkartearen batzarra Kultur Etxean 17:00etan.

Tolosa. *Esperientziak* proiektuko argazki liburuaren eta DVDaren aurkezpena Zerkausian, 20:00etan.

Tolosa. Egozkue-Aldude (Behe Nafarroa) irteera antolatatu du Alpino Uzturre mendi elkarteak iganderako. Izen-ematea, elkartearen bertan (Gudari 6. 943 65 27 89).

Tolosa. Udaberri dantza taldeko kideek hasi dituzte dagoeneko Bordon dantzarako entseguak. Hauek ostegunetan izango dira, 20:30ean, Usabal kiroledegian.

Villabona. Errozate-Urkulu (Behe Nafarroa) mendi irteera antolatatu du Aizkardik iganderako. Izen-ematea, elkartearen edo 943 694458 telefonoan (Joxan).

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.
Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
 20:00-21:00. *Irauli uhinak*.
 21:00-23:00. *Bide okerretik*.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

Han eta hemen, edertasuna

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Irakurleak euren argazkiak bidaltzen ari dira; ez galdu aukera eta bidali zuen Aste Santuko argazkiak, etzi baita azken eguna

PEÑISCOLA ▶

Marian Agirre (Ibarra).

Argazki eder hau ateratu zuen Marian Agirre ibartarrak, Mediterraneoako kostaldean. Jakina da eguraldi kaskarra egin duela Aste Santuko oporraldian inguru horietan baina ederki igaro du Marianek. «Lagunok, argazkien azaltzen den herria Peñiscola da, nahiz eta eguraldiak ez lagundu, oso ondo igaro dut nire familiarekin besteak beste argazkiak ateraz», aitortu digu berak.



GATA-KO LURMUTURRA ▶

Javi Aramendia (Tolosa).

Paisaia eta loreak uztartzean emaitza paregabeak lortu du gure irakurleak. Izan ere, argazki eder hau ateratu zuen Javi Aramendiak Aste Santuan Almerian (Espainia) kokatzen den Gatako lurmuturrean. «Argazkia Cabo de Gatan (Almeria) aterata dago Monsul izeneko hondartzan. Basamortuko loreak beste leketan baino politagoak ikusten dira», dio tolosarrak.



AÏT BENHADOU ▶

Gotzon Iraola (Tolosa).

Gure irakurleen artean, askok eta askok aukeratu dute Maroko aldera bidaiatzea. Horien artean ere Gotzon Iraola dago. Bertan bitxikeria ugari harrapatu dituzte kamerarekin. Argazki eder bezain berezi hau beste adibidetariko bat da. «Aste Santuan Marruecos-era egindako bidaiaren argazki bat bidaltzen dizuet. Ait Benhadou izeneko herrixka politean aterata dago, bertako dendetako baten kanpoan». Deigarria denik ezin ukatu.

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitzaan Udaletxeko bulegoa